

Ingurumen Buletina

- 1. The Sky's Limit edota zeruaren muga***
- 2. Zergatik babesten du ELAk Zubietako erraustegiari dagokionez GuraSOSen posizioa?***
- 3. Ekonomia Sozial eta Solidarioaren II. Kongresua***
- 4. Politika Publikoak Elikatzen: I. Nazioateko Mintegia (Donostia)***

1. The Sky's Limit edota zeruaren muga.

Parisko Itunak, COP21 izenez ere ezaguna, berotze globalaren ondorioak txarrera ez joatea dauka helburu. ELAk askotan kritikatu du itun hori, helburu kopuru bat ezartzen duelako, baina aldi berean herrialde sinatzaileen eskuetan uzten duelako helburu horretara iristeko hartu behar diren neurriak; bestalde, ez ditu zigorrak ezartzen arauak bete ezean. Gure ikuspuntutik, hitzarmen hau nahikoa ez den arren, badu balio handiko zerbait: helburuak finkatzerakoan komunitate zientifikoak agertu duen ahobateko jarrera:

Tenperatura globalaren batez bestekoa industria-aurreko mailatik 2 gradu azpitik mantentzea. Haatik, hori horrela izan arren, herrialde guztiek **1,5 gradu ez gainditzeko eta hondamendi eraginak saihesteko** konpromisoa hartu dute.

Nazioarteko klima-hitzarmen berriaren aurrean, COP22 izenekoa, Oil Change International erakundeak (<http://priceofoil.org/2016/09/22/the-skys-limit-report/>), mundu osoko 14 erakundeekin batera, txosten bat argitaratu du (ELAk dagoeneko onartu duena), non adierazten

duen zein urrats jarraitu beharko lituzketen COP21-eko sinatzaileek agindutako helburuak betetzeko. Edo beste era batera esanda, datozen urteetan gure gobernuen politikei gomendio argi eta zehatzak ematen dizkie berotze globalaren ondorio katastrofikoak saihestu ahal izateko. Ikerketa honen emaitzak ELAren plantamenduekin bat datoz, hau da, pixkanakako, kontrolaturik eta botere publikoengandik onartuta estraktibismoa alde batera uztea, eta horrek dakarren erregai erauzketaren muga:

1. Gaur egun dauzkagun petrolio, gas eta ikatz erreserbak agortzeak goian aipatzen ditugun COP 21ek ezarritako helburuak ez betetzea ekarriko luke, nahitaez.
2. Klima aldaketaren aldean, hitzetatik ekintzetara pasatzen eragozten duen mugarik nagusiena benetako borondate politikorik ez izatea da. Eta ez askotan aipatzen diren oztopo ekonomiko edo teknikoak.
3. Asbjørn Wahlek sindikalista norvegiarrak azaltzen duenez, lanpostuak sortzeko klima aldaketaren arintzearen potentziala ez genuke gutxietsi behar, bereziki, energia

garbien sektorean. Eta sindikatuaren ikuspuntu batetik, enplegu horiek kalitatezkoak izatea exijitu behar dugu.

Gomendio nagusiak:

- Ez da sortu behar erauzketa edo erregai fosilen azpiegitura gehiago, eta gobernuek ez lukete ustiapen-lizentzia berririk eman beharko.

- Petrolio gune eta meategi batzuk, batez ere, herrialde aberatsetan, guztiz ustiatuta egon aurretik itxi beharko lirateke, eta diru laguntzak herrialde pobreetan energia garbia garatzera zuzendu beharko lirateke.

- Honek ez du esan nahi, egun batetik bestera erregai fosilen erabilera baztertzea. Gobernuek eta enpresek erregai fosilen industriaren kontrolpeko murrizketa plan bat aurrera eraman beharko lukete, bidezko trantsizioaren printzipioak jarraituz eta energetiko dibertsifikazio plan baten bidez.

Azkenik, azpimarratu behar dugu Oil Changek egin duen azterketaren balioa, gure planetaren muga biofisikoak eta izaki bizidunen ongizatea kapitalaren aurrean jartzeagatik. Eta batez ere, energia fosilen

baliabideak agortu arte ekoizpen eredua bere horretan uztearen estrategiak ondorio katastrofikoak dakartzatela esateko nahiko ausarta izategatik.

Arrazoi guzti hauengatik, esteka honen bidez <https://goo.gl/forms/nMi9aGBLr41bBaOt2> "Oil Change International" kanpainari atxikimendua ematea eskatzen dizuegu.

2. Zergatik babesten du ELAk Zubietako erraustegiari dagokionez GuraSOSen posizioa?

Azaroaren 26an GuraSOS plataformaren ekimenez, milaka lagunek Donostian protesta agerraldia egin zuten, helburu komun batekin: Gipuzkoako hondakinen kudeaketaren gatazka konpontzeko bide bat aurkeztea.

Bide hau nagusiki ideia komun batean oinarritzen da, ingurumena eta osasun publikoa gehien bermatzen duen irtenbiderik bilatzea, eta, aldi berean, ahalik eta gizarte kohesiorik handiena lortzen duena. Gure oinarria hauxe da: erraustegiek ez dute osasun publikoa behar bezala bermatzen, eta ondorioz, arreta-printzipioa aplikatu behar zaie. Ideia hau hainbat mediku ikerketetan

oinarritzen da, besteak beste J.A. Ortega y Cols pediatrik izenburu honen azpian batzen dituenak daude: “Pediatria eta hondakinen errauskailua”. Ikerketa hori, aldi berean, garrantzi handiko aldizkarietan -Medline, Science Citation Index edota Embase-oinarritzen da.

Argitalpen honek ondorioztatzen du hiri-hondakin solidoek, biosanitarioek eta toxikoek giza osasunean eragin kaltegarriak dituztela. Era berean, biztanleriaren talderik ahulena haurrak direla onartzen du; beraz, honek frogatzen du GuraSOSek umeei buruz duen kezka bidezkoa dela.

Kutsatzaile horiek giza osasunean eragin larriak dituzte; horien artean, kantzerra eragitea, eten hormonalak eta ugalketa funtzioa murriztea. Ildo horretan adieraztekoa da, artikulu zientifiko berak diona: Espainiako Estatuan bizi direnek, substantzia horietatik (batez ere, dioxinak eta furanoak) OMSek gomendatzen duen gehieneko mailak baino gehiago jasotzen dutela.

Horregatik Ortega medikuak GuraSOSen eskaeretatik oso gertu dagoen honako paragrafoarekin ondorioztatzen du bere artikulua: “*Tokiko gobernuek, eskualdekoek*

eta estatukoek errausketa euren politiketatik eliminatzen saiatu behar dira eta sustatu behar dituzte metodo alternatiboak hondakin toxikoak tratatzeko”.

GuraSOS taldeak urteak daramatza Gipuzkoan hondakinen kudeaketaren bidegurutzean. Eta, ezaguna den bezala, hondakinen kudeaketak lurralde honetan gatazka eta gizarte zatiketa ekarri du. Egoera hori gainditzeko beharrezkoa da herritarren parte-hartzea eta gaiaren sozializazio indartsua. Eztabaida-prozesu horrek bi oinarri izango lituzke: Bat gizarte eremukoa, arlo publikoa ere present dela, eta bestea teknikoa, erakundeek, alderdi politikoek eta elkarteek izendatutako teknikoekin. Batzorde tekniko honen helburuak lirateke hiritarrak nahiko informatuta egotea eta prozesua bera behar bezain gardena dela ziurtatzea.

Partaidetza prozesu honen helburua osasun publikoa eta ingurumena gehien bermatzen duen konponbide bat bilatzea da eta, aldi berean, adostasun tekniko eta sozial batean oinarritua izatea.

Hau, jakina, Gipuzkoako erakundeek ezarritako epearekin bateraezina da; beraz, talde honen lehen erreklamazioa sei hilabeteko moratoria aplikatzea izango litzateke.

3. Ekonomia Sozial eta Solidarioaren II.

Kongresua

<http://esskongresua.net/eu/ekonomia-social-solidaria-aurkezpena/>

Azaroaren 10, 11 eta 12an Ekonomia Sozial eta Solidarioaren bigarren kongresua egin zen Bilbon.

Ekitaldiaren lema “Ekonomia solidarioaren hedatzea. Ekonomia eraldatzeko garaia da!” izan zen eta helburua sistema kapitalistari alternatibak bilatzen dabilen biztanleriari eredu ekonomiko etikoagoak planteatzea izan zen. Horrez gain, badauden ekonomia sozial eta solidarioaren sareak sendotu eta aliantza berriak sortzeko asmoa izan zuen.

Kongresua sei ardatz nagusi eta horizontaletan banandu zen, ekonomia solidarioaren praktika eta teoriak barneratzen dituen gai nagusiak era zabal eta integratuan heltzeko:

1. Ekonomia inklusibo eta demokratikoa
2. Ekonomia solidarioa izango da feminista baldin bada
3. Mugak gaintuz. Ekonomia sozial eta solidarioaren ehun produktiboa sortu, garatu eta eraldatzea.
4. Ekonomia sozial eta solidarioa eta

ondasun komunak

5. Herritarren bategitea eta ekonomia solidarioa: egitura kooperatibo zabalak, ESSaren eraikuntzan.
6. Trantsizioak mundu iraunkorrako bateko ekonomia berrietarantz

Buletin honetan Cesar Renduelesen hitzaldiaren eta 6. ardatzaren laburpenak azaltzen dira.

Ponentzia: ekonomia solidariotik poskapitalismora: aukerak, erronkak eta promesa faltsuak César Rendueles (Universidad Complutense de Madrid)

César Rendueles soziologo eta saiakeran aditua da eta Kongresu honetan parte hartu zuen. Ekonomia sozial eta solidarioa goraiatu ostean, zalantzarik gabe ezker eraldatzailea bide horretatik eta kooperatibismoarenetik joan behar dela zehaztu zuen. Baina bide hori ez dela erraza izango, erronka ugari eta ezberdinei aurre eginez:

1.- Lehenik, ekonomia mota horren abizen bat aurkitzen da, soziala hain zuzen. Horri buruz, sozialaren kontzeptua neutroa ez dela baieztatu zuen. Ekonomia soziala soilik klase ertainaren tresna bilakatu daitekeela aipatu zuen arrisku gisa, errenta altuena duen

biztanleriaren %30arena hain zuzen. Ildo horretan, populazioaren gehiengoa kooperatiba bat sortzeko balditzetan ez dagoela esan zuen.

Hortaz, ekonomia sozialak langile klasea alde batera uzteko arriskua ikusten du, bestek beste hezkuntza kooperatibetan gertatzen den bezala. Eta ekonomia erdiko eta "progresista" klaseek eta klaseentzat sortzearen arriskua dagoela, komunikabideetan eta hauteskunde programetan gehiegizko errepresentazioa ematen zaienei. Ekonomia mota honen irismenak eragin zuzena du gizartea eraldatzeko duen ahalmenean.

2.- Bigarrenik, klase ertainaren ahalmen eraldatzailea oso ahula dela esan zuen, eraldaketa ezer galdu ezin dutenek bideratzen baitute. Adibide gisa etxetik kaleratu dituzten pertsonak jarri zituen. Horrela, lan egoera prekarioa eta baliabide ekonomiko gutxi dituztenen borroka ahalmena goraiatu zuen, pertsona horiek duten indar, ausardi eta bizitasunagatik, nahiz eta askotan borroka denboran asko luzatzen diren, greben kasuan besteak beste.

Arrazoi horregatik, ekonomia sozial eta solidarioa sindikalismoari loturik egon behar da eraldaketa soziala sortzeko. Zehazki,

sindikalismo aldarrikatzaileari loturik egon behar da, ELAk egiten duen sindikalismoa hain zuzen.

Ondorioz, ekonomia sozial eta solidarioa, benetan eraldatzailea izan dadin, demokratizatu eta sozializatu egin behar da, eta horretarako ezinbestekoa da sindikalismo indartsu eta aldarrikatzaileak bide horretatik jotzea.

6. Ardatza: Trantsizioak mundu iraunkorrako bateko ekonomia berrietarantz. Parte hartu zuten Ortzi Akizu Gardoki, Mirene Begiristain, Gabriela Vázquez eta David Gonzálezek.

Daukagun energia ereduak bi ezaugarri nagusi ditu. Alde batetik, oinarrizko energia beharrak aseturik baditugu, energiaren kantitate eta kalitateak (nola sortzen den) ez du gure bizitzan eragiten. Bestalde, ereduaren ondorioak gugandik urrun dauden pertsonak pairatzen dituzte, bai fisikoak direnak (meteorologiari dagozkionak) eta baita tenperaturari dagokionez.

Pobrezia energetikoa definitzeko adostasuna dago: pertsona edo familia baten soldataren %10 edo gehiago energiara bideratu behar denean. Honek zuzenean du erlazioa Estatu espainiar eta EAE mailan dauden oligopolio

energetikoekin, ate birakarien ondorioz dauden oligopolioak. Norbaitek sinistu dezake politikari batek defendatu dezakeela egun batean denon ongizatea eta hurrengo egunean bere etorkizunerako lanpostu bat gordetzen dion enpresaren interesa? Honen eraginez, Espainiar estatua Europar Batasuneko 5. garestiena da tarifa elektrikoan eta 2007-2012 epealdian eman den garestitzean bigarrena.

Horretaz gain, 2012an familien %18ak aitortu zuen arazoak zituela etxeko tenperatura mantentzeko neguan. Egoera honen aurrean, ezinbestekoa da kontsumitzaileek kontzientzia hartzea oligopolioak ez diren enpresak badaudela.

Gaur egun aurpegi asko dituen krisi baten aurrean gaude, alderdi soziala premiazkoa delarik:

- Populazioaren %1ak duen aberastasuna gainontzeko %99ak duenaren bezalako da. Klaseen arteko ezberdintasuna argi ikusten da datu honekin.
- Emakumeek gizonek baino 59 egun gehiago egin behar dute lan urtean gizonek bezainbeste kobratzeko.

- Elikadura sistema guztiz kaltegarria dugu.
- Ekoizpen medioak galdu ditugu era progresiboan, eta ondorioz hirietako bizimodua oso ahula da.

Egoera injustu eta negargarri horien aurrean, gure ekoizpen sistema berregiteko alternatibak eskaintzen dituen jarrera eraikitzailea hartu beharra dago. Horretarako, Mirene Begiristainek zioenez, autonomia ematen diguten egitura deszentralizatuz zuzkitu behar gara, ekoizpen medioen jabe izan berriro; horri loturik, agroekologia kontuan izan beharreko alternatiba da, ekoizpen eta ugalketa barneratzen baititu.

Hori guztiagatik, kontzientzia hartu behar da ekonomia ezberdinak sortu direlako ezberdintasun eta banaketaren eztabaidetatik atera diren ondorioen erantzunetatik.

ELAk energia trantsizioaren aldeko apustua egiten du. Ortzi Akizuk horrela definitzen du: *energia nuklearra eta erregai fosilena alde batera uzten duena deszentralizatuagoak diren energia berriztagarrien alde, ingurumenean duten eragina txikitzen delarik eta erregai fosilen eskasiara egokituz. Benetako energia transformazioak (ekitatibo*

eta jasangarriak) ez du soilik energia sistemaren eraldaketa eskatzen, baita ekonomia ereduarena ere.

Ikusten denez, mota honetako eraldaketa batek ekoizpenaren kontrola behar du. Hau da: nondik datorren kontsumitzen dugun energia, zer motatakoa den, zer nolako lan-baldintzetan ekoiztu den, ingurumenean zein eragin izan duen eta abar. Horrez gain kontsumismoa baztertu beharra dago, eredu ekonomikoa hazkunde mugagabetik bereiziz: planetako muga biofisikoak eta pertsonen beharrianak kontuan izan behar dira ekoiztean. Beste hitz batzuetan: pilatze eta natura zein gizakien lapurreta prozesuak ukatu behar dira kultura, gizarte eta kognitiboa den iraultzaz.

Gainera, nahi dugun trantsizioak baldintza batzuk bete behar ditu. Karbono emisioetan baxua izan behar da, ugalketa kontuan hartu eta baloratzen duena (gaur egungoaren kontrakoa) eta demokratikoa. Trantsizio hori egin dadin kontsumitzaileak izan behar duen informazioa egiazkoena izan behar da. Horretarako, kontsumo globalaren informazioa izatea ezinbestekoa da. Bestela iritziak informazio manipulatuarekin egiten

baitira, 20/20/20 Helburuekin gertatzen den bezala.

20/20/20 Helburuekin lortzen den informazio eta datuak erlatiboegiak baitira. Estatu batzuek besteek baino askoz gehiago kontsumitzen badute ere, aurpegia zuritzen dute. Soilik erregai fosilekiko daukaten dependentziaren ehunekoaren gutxitzea aztertzen baita, baina ez da kontuan hartzen estatu askok egin duten murrizketa egoera jasangaitz batean zeudelako izan dela. Horrela, Txinak kontsumitzen du Alemaniaren %19 beste, baina Alemania askoz hobeto kalifikatzen da neurgailu guztietan soilik murrizketa hartzen delako kontuan. Bestalde, estatu ekoizleak egoera okerrago batean geratzen dira neurgailu horietan, estatu kontsumitzaileetan egiten den kontsumo estatu ekoizleei inputatzen baitzaie, energia fluxu izkutuak albo batera uzten dituen prozesu batean.

Azkenik, biztanleriak egin ditzakeen benetako eraldaketak proposatzearen beharra planteatu zen. Besteak beste, birlokalizazioa aipatu zen (ekoizpen prozesu asko maila lokalean egin daitezela garraio kostuak murrizteko eta lan-baldintza eta

ingurumen duinak bermatzeko) eta horretarako kontsumitzaileok bertoko produktuak erosi ditzakegula plazaratu zen, auzoko dendetan eta tokian tokiko produktuak erosiz.

4. Politika Publikoak Elikatzen: I.

Nazioarteko Mintegia (Donostia)

<http://politikak-elikatzen.bizilur.eus/wp-content/uploads/2016/10/Politika-Pulbikoak-Elikatzen-Mintegia.pdf>

Azaroaren 16 eta 17an, Elikadura Burujabetzarako Politika Publikoari buruzko 1. Nazioarteko Mintegia ospatu zen, Donostian. Elikadura burujabetzatik, mugimendu zabal bat eraikitzea izan zuen helburu, non eragile bakoitzak (administrazio publikoek, mugimendu sozialek, baserriarrek, elkarteek, kontsumitzaileek...) parte hartzen duen bestelako elikadura ereduen eraikuntzan: jasangarriago eta justuagoak diren ekonomia, elikadura eta gizarte ereduak.

Artikulu honetan José Bovéren ponentzia jasoko dugu. Bera nekazaria, alderdi berdeko eurodiputatua eta "Via Campesina"ren

bozeramaile ohia da. Bové aurkezteko bere nekazaritza ereduari buruz hitz egitea beharrezkoa da: bere oinarriak, osasuna eta ingurumenarekiko errespetua eta elikadura burujabetzaren giza eskubidea aldarrikatzea, eta prozesu global batean dagoen baserriarren belaunaldi berri baten barruan dago.

Bere aurkezpena oso didaktikoa eta argia izan zen, azalpen historiko baten bitartez, gaur egungo nekazaritzaren egoera azaldu baitzuen eta, beraz, mugimendu horrek zergatik borrokatzen duen elikadura burujabetzaren alde.

Bové baserriko ustiapen bereziaren definiziotik hasten da, bere nekazaritza ereduaren zein den azaltzeko, eta argi uzten du horrek ez duela zerikusirik industrial ustiategiekin. Lur-kudeaketa kolektiboaren aldeko apustua egiten du, legezko usufruktu kontzeptuaren bitartez. Hori horrela izanda, nekazaria bera ez dago lurra erostera behartuta, eta ondorioz, askoz ere jende gehiagori eskaini ahal zaio lan aukera hori, ekoizpen bitartekoak aldatzen direlako.

Bere ikuspuntutik, hala nekazarien nola

bestelako pertsonen elkarrenganako partizipazioa egon behar da gizarteko transformazio honetan. Edo beste hitzetan, baserritarrak gizarte mugimendu global batean sartuta egon behar dira.

Esan denarekin bat, Bovék baserritar mugimenduaren gauzak eraldatzeko ahalmenaren adibide bat aipatu zuen, hain zuzen ere hazkunde hormonaren aurkako borroka. Baserritarrak izan ziren bere erabilera salatu zuten lehenak, efektu kartzinogenoak baitituzte. Horrek jendea sentsibilizatu zuen eta honi esker, bere erabilera debekatu egin zuten EBn.

Ondoren, azaldu zuen Europako eremuan elikadura burujabetzaren errebindikazioa nondik datorren. Horretarako, PACen, hau da, Europako Nekazaritza Politika Bateratuaren sorreratik hasi zen. Bigarren Mundu Gerra eta gero, nekazaritza-ekoizpen nahikoa behar zela argi zegoen. Horretarako, nekazariak irabazten zuten ordainsaria gizarte orokorraren maila berean egon behar zela pentsatu zen. Helburu horrekin, nekazaritza eta abeltzaintza sektore erakargarri gisa aurkeztu ziren, non jendeak duintasunez gara zezakeen bere lan bizitza.

Idea honek PAC ekarri zuen, baina urteekin, politikak gainbehera joan ziren, bereziki 80ko hamarkadako gehiegizko ekoizpenarekin.

Ordutik hona, politika horiek ekoizpen eta kontsumoaren arteko harmonizaziorako tresnak bihurtu ziren, esate baterako, esnari edo haragiari aplikatzen zizkieten kuoten bidez. Urte horietan ekoizpenaren kontrola egin zen, baina ez prezioena.

1992. urtean baserrien errealitatearen kanpoko fenomeno batek eraginpean, PACarekiko haustura gertatu zen: Industria sektoretik nekazaritza integratzen da Munduko Merkataritza Erakundearen barruan, eztabaida demokratikorik gabe, esportatzaile nagusien presioari esker.

Honek hiru aldaketa dakar:

1. Nekazaritzako produktuen prezioa ez da merkatu prezioen parekoa. Ezin dugu jada esan prezioek konpentsatzen dutenik. Horrez geroztik, munduko prezioak dira erreferentzia, hots, gehiegizko ekoizpenetik datozenak. Ondorioz, esportazioko prezioak

ekoizpenekoak baino askoz ere txikiagoak dira.

2. Nazio mailan, nekazariei laguntzea debekatzen da.
3. Munduko Merkataritza Erakundearen herrien artean, derrigor, mugak irekitzea eta muga-zergak jaistea inposatzen da.

Honek, besteak beste, estatuek beren burua erregulatzeko zuten ahalmena hondatu zuen. Eta lehen estatuen esku zegoen botere hori, aurrerantzean, elikadura sektoreko industria nagusien eskuetara pasatu zen. Egoera honen aurrean baserritarrak errisistitzen ari direla esan behar da. Transnazionalak espero zutena baino askoz ere gutxiago esportatzen ari baitira, eta ez dute nekazaritzako ekoizpen eremuan hainbesteko kontrolirik.

1992.urtean elikadura burujabetzarako mugimendua sortu zen eta 1996. urtean honako izenaren kanpaina sortu zen: "Elikadura burujabetza globalizazio eta merkaturen irekitzearen aurka". Hori zela medio, burujabetza mota hori herrien eskubide gisa ikusten hasi zen, euren populazioa elikatzeke, ordaintzeko eta

babesteko politikak definitzeko eskubidea, hain zuzen ere.

MMEren politika horiek ezin dute nekazaritzan funtzionatu. Herrialde askotan prozesu honek euren orekak suntsitu ditu. Ezin duzu zure jendea elikatu, ustiategi nazionalak ezin dute nazioartekoaren presioa jasan. Librekanbismoarekin lotutako nekazaritzak ez du zentzurik. Ildo horretatik, gaur egungo bataila CETA eta TTIP aurkako kanpainak dira. Hitzarmen hauek, jakina, ez baitaude nekazari txikien edo kontsumitzaileen onerako eginda. Horregatik, Bovéren arabera CETAk nekazaritzaren hondamendia esan nahi du.

Egoera honekiko Bovéren postura argi dago: Elikadura burujabetza abstraktua den kontzeptu batetik gizartea eraldatzeko mekanismo bat izatera pasa dadin onarpen juridiko bat behar da. Giza, Gizarte eta Kultura Eskubideen NBEren Gutunak formalki aitortu behar du elikadura burujabetzaren eskubidea. Bakarrik nazioarteko zuzenbidearen babes horri esker, elikadura burujabetza eskubidea medio, nekazarien mobilizazioen indarrak eta trasnazioanalenak parekatuago egongo lirakeelako.

espezifikoak direlako.

Azkenik, argitu beharra dago elikadura burujabetza praktikatik, eremu lokaletik eta sozializatuz eraikitzen den kontzeptu bat dela, eta bakarrik fase hori gaindituz gero pasa gaitzekela eremu globalera. Hori ezinbestekoa da, Ana Moraguesen hitzetan, elikadura burujabetza ezin baita eraiki lurraldeko konexiorik gabe: Elikadura burujabetza lurraldez lurralde definitu behar da, tokian tokiko beharrak desberdinak eta

Horregatik, indar oreka berri bat eraiki behar dugu, non baserritarrak ekoizpen eta gizartearen zentroan dauden, eta horrela bidezko elikadura iraunkor sistema bat eraiki, zeinetan lehengo urratsa berlokalizazioaren aldeko apustu bat izango litzatekeen.